



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

### **ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZURAKO GIDARIEN/ZAMAKETARIEN LAN-POLTSA SORTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK**

#### **1.- Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da gidarien/zamaketarien lan-poltsa bat sortzea, Mankomunitate honetako etxe-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuan gerta daitezkeen aldi baterako behar edo premiak betetzeko.

Zamaketarien aldi baterako premiak betetzeko poltsa hau erabiliko da baldin eta zamaketarien lan-poltsan ez badago inor erabiltzeko moduan, eta zamaketari-postuari dagozkion soldatak ordainduko dira.

#### **2.- Eginkizunak**

Lanpostuaren eginkizun edo zereginak honako hauek izango dira:

- Hondakinak biltzeko ibilgailuak gidatzea, eta kamioiaren barneko nahiz kanpoko mekanismoak erabiltzea.
- Lantaldeak Mankomunitateko arduradun edo zerbitzu nagusiekin izan behar dituen komunikazioez arduratzea.
- Lan-partea egitea Mankomunitateak ezarritako sistema-ereduarekin.
- Zamaketariak egin duen kamioi-garbiketari onarpena ematea, eta bakarrik lan egiten badu, kamioiaren garbiketa berak egitea.
- Zamaketariaren irizpidearen arabera egindako edukiontzien bereizkuntza egiaztatzea, edukiontzia jaso gabe laga aurretik.
- Egingo den ibilbidean jaso daitezkeen edukiontzien kodetzeaz arduratzea, izandako gorabeherak erregistratuz.
- Gorabeheraren berri erabiltzaileari ematea, gorabehera hori beraren zabarkeriaz gertatu baldin bada.
- Lan-tresnen (ibilgailu, kodetze-tresna, telefono mugikor, GPS eta abarren) funtzionamendu onaz arduratzea.

- Ibilgailuak duen edozein kalte edo matxuraren berri mekanikariari ematea.
- Lantaldeak bere lan edo beharra segurtasunez egin dezan arduratzea.
- Aipaturiko horiez gain, nagusiak agintzen dizkion zereginak, betiere bere lanpostuari dagozkion neurrian.

Batez ere, lehen aipaturiko egitekoak izango dituzte gidariak/zamaketariak, baina beharrezkoa denean zamaketarien egiteko hauek ere bete beharko dituzte:

- Hondakinak biltzeko ibilgailuak dauzkan kanpo-mekanismoak erabiltzea.
- Edukiontzia jasogailuan kargatzea eta deskargatu ondoren bere lekuan uztea.
- Beharrezkoa bada, zabor-poltsak eskuz kargatzea ibilgailuaren toberan.
- Zerbitzua amaitzean kamioia garbitzea.
- Garbigune ibiltaria leku batetik bestera aldatzea, eta Garbiguneko langileari hondakinak deskargatzen laguntzea.
- Garbigune ibiltariaren mantentze-lana egitea (garbiketak, konponketa errazak...).
- Zerbitzua ematen hondaturiko edukiontzien mantentze-lana egitea.
- Aipaturiko horiez gain, nagusiak agintzen dizkion zereginak, betiere bere lanpostuari dagozkion neurrian.

### **3.- Hautagaien baldintzak**

Onartuak izan eta oposizio-lehiaketan parte hartzeko, eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunean hautagaiak ondorengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko herritartasuna izatea, edota Europako Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko Itunen aplikazioaren arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion Estaturen bateko herritar izatea.

Baita ere parte har dezake Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko herritarren ezkontideak, zuzenbidez banatuta ez badaude; baita horren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude, ondorengo hauek hogeita bat (21) urtez beherakoak badira edota zaharragoak izan arren, haren kontura bizi baldin badira.

Baita ere har dezakete parte aurreko paragrafoetan sartu gabeko atzerritarrek, Espainiako Estatuan bizi direnek. Aukeratuak izaten badira, egiaztatu egin beharko dute, kontratua formalizatu baino lehen, badutela administrazio-baimena kontratuaren xede den jarduera egiteko.

- b) 16 urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako gehienezko adina gainditu gabe izatea.
- c) Eskola-ziurtagiria izatea.
- d) C gidatzeko baimena izatea. Eta lanean hasi aurretik, takografo digitalaren txartela eskuratzea, eta Lanbide Gaitasuneko Ziurtagiria (LGZ-CAP) ere bai, baldin eta ziurtagiri hori nahitaezkoa baldin bada 1032/07 Errege Dekretuaren arabera. Ordurako bi dokumentu horiek eskuratu ez dituen ezingo da lanean hasi.
- e) Lanpostuko eginkizunak betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea.
- f) Herri Administrazioen zerbitzura lan egiteko debekupean ez egotea zigor-espeditenteen ondorioz, edo eginkizun publikoak betetzeko gaitasungabetu edo inhabilitatuta ere ez egotea.
- g) Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak —Herri Administrazioen zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzkoak— ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasuneko kausa legalen batean sartuta ez egotea, baina lege-arau horrek berorrek aipatzen duen aukera-eskubidea erabil dezakete dagoeneko postu publiko batean daudenez edo bateraezina den jarduera pribatu batean dihardutenek.

#### **4.- Eskariak aurkeztea**

Oposizio-lehiaketan onartuak izateko eskariak Mankomunitateko lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta 20 laneguneko epean aurkeztu behar dira, ondorengo baldintzak betez:

- a) Deialdiaren 3. oinarrian eskatzen diren betekizun guztiak eta bakoitza betetzen dituztela agerrarazi behar dute hautagaiek, eskariak aurkezteko epea bukatzen den datari buruz betiere.
- b) Hautagaiek lehiaketa-aldian balioetsiko diren merituei buruzko datuak agerrarazi behar dituzte. Ez dira balioetsiko eskarian sartzen ez direnak.

Eskariak, eta horien eredia Mankomunitateko bulegoetan emango da eta bere web-orrian ere eskura daiteke, behar bezala beteta eta NAN-aren fotokopiarekin batera, Mankomunitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Arrasateko (Gipuzkoa) Nafarroa Etorbideko 17an, edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak — 38.4 artikuluan ezartzen dituen moduetakoren batean.

## **5.- Aurkeztu beharreko agiriak**

a) Eskariarekin batera aurkeztu beharrekoak:

- NAN-aren fotokopia, edo Europar Batasuneko beste Estatu bateko kideen kasuan, nortasuna eta herritartasuna egiaztatuko dituen agiriaren fotokopia.
- Hala badagokio, egiaztaturik duen hizkuntza-eskakizunaren frogagiria.

b) Hautatze-prozesuan aurkeztu beharrekoa:

Eskarian alegaturiko merituen egiaztagiriak gero aurkeztuko dira, Epaimahai Kalifikatzaileak ezarriko duen eran eta epean.

Agiri hau oposizio-aldia gainditzen dutenei bakarrik eskatuko zaie.

c) Hautatze-prozesua bukatzen denean aurkeztu beharrekoak:

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 3. oinarrian eskatzen diren betebeharren egiaztagiriak aldi baterako kontratazioa baino lehen aurkeztu beharko dituzte hautagaiek, Mankomunitateak eskatzen dizkienean.

d) Agiriak alderatzea:

Parte hartzeko eskatzen diren baldintzak nahiz merituak egiaztatzeko, agiri originalak beren kopiekin aurkeztu behar dira Mankomunitateko Erregistroan bertan alderatzeko, salbu eskariarekin batera entregatu behar den NANren kopia. Kopia bere originalarekin alderatzea Mankomunitatean bertan egingo da, eta oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko bakarrik.

## **6.- Hautagaien onarpena**

Eskariak aurkezteko epea bukatzean, hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu Mankomunitateko lehendakariak. Zerrenda horiek Mankomunitateko iragarki-taulan emango dira argitara eta web orrian ([www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus)), eta 10 laneguneko epea utziko da ez-onartzea eragin duten akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko, edota zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Erreklamazioak egiten badira, onartu edo baztertu egingo dira beste ebazpen baten bidez, eta honela onarturiko behin betiko zerrendak lehen adierazitako moduan jarriko dira jendaurrean.

## **7.- Epaimahai Kalifikatzailea**

Honela osatuko da oposizio-lehiaketako Epaimahai Kalifikatzailea:

### **Lehendakaria**

- Ingurumen Zerbitzuko Ustiatze-arduraduna edo honek eskuordeturiko teknikaria.

### **Mahaikideak**

- Mankomunitateko bide publikoetako zerbitzuen arduraduna edo honek eskuordeturiko teknikaria.
- Ingurumen Zerbitzuko teknikari bat.
- Laneko arriskuen prebentzio-teknikaria.

### **Idazkaria**

- Mankomunitateko idazkaria edo, hala balegokio, bertako Administrazio Orokorreko teknikari bat.

Hautaketa-probetan eta Epaimahai Kalifikatzailearen bileretan, Hondakinak Kudeatzeko Batzordeko zein Gobernu Juntako kideak egon ahal izango dira; baita langileen ordezkariak ere.

Epaimahaiko kideak Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapen hori Mankomunitateko iragarki-taulan eta web orrian emango da argitara, onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera.

Epaimahaiari komenigarri iruditzen zaizkion probetan, gai bakoitzean aditu diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.

Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legeak 28. artikuluan ezarritako egoeretakoren bat ematen bada Epaimahaiko kideengan, kide horiek ez dute esku hartu behar —Mankomunitateko lehendakariari horren berri emanez— eta hautagaiek ere ezetsi egin ditzakete.

### **8.- Oposizio-aldiko ariketak**

Oposizio-aldiko ariketetarako deialdiak, Epaimahaiaren ebazpenak eta prozedura honen ondoriozko gainerako jakinarazpenak Mankomunitateko iragarki-taulan eta web orrian emango dira argitara.

Ekitaldi bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hauek behar bezala justifikatuta badaude eta Epaimahaiak askatasunez horrela iritzita.

Oposizio-aldian ondorengo ariketak egingo dira:

Lehen ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea.

Proba honek bi zati izango ditu:

1. Proba teorikoa: 1. Eranskinetako gai-zerrendari buruzko galdera-sorta bati idatziz erantzun zaio. Probaren zati bat euskaraz egin beharko da. Atal honen gehienezko kalifikazioa 10 puntukoa izango da eta gutxienez 5 lortu beharko dira proba gainditzeko.
2. Proba praktikoa idatzia: Proba praktikoa lanpostuko egitekoei eta 1. Eranskinetako gai-zerrendari buruzkoa. Atal honen gehienezko kalifikazioa 15 puntukoa izango da, eta gutxienez 7,5 lortu beharko dira proba gainditzeko.

Ariketa honen bi zatia batera egingo dira, baina lehenengo zatiko proba teorikoa gainditzen ez dutenei ez zaie zuzenduko bigarren zatiko proba praktikoa. Kanporatuta geratuko dira.

Bigarren ariketa: Euskara proba. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. 2. hizkuntza eskakizunaren mailako proba bat egingo da euskararen ezagutza baloratzeko. Oposiziogileek gutxienez 1. hizkuntza-eskakizunari dagokion ezagutza gainditu beharko dute.

Ariketa honetan GAI edo EZ GAI emango da, eta proba honek barne ondorioak izango dituzenez soilik, Mankomunitateak ez du inolako ziurtagirik luzatuko.

Bestalde lan poltsan geratuko dira 1HE egiaztatzen dutenak ere, beti ere 2HE dutenen atzetik, ezagutza ziurtagiri bidez edo bai euskara frogatik bidez egiaztatzen ondoren.

Proba hau egitetik salbuetsita egongo dira Euskal Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean dauden arauetan aurreikusitako titulu edo agiriren bat dutela egiaztatzen duten oposizilogileak. Baita aurreko deialdiren batean Debagoieneko Mankomunitatean bertan dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak ere.

## **9.- Lehiaketa-aldia**

Merituen lehiaketa aldia ez da kanporatzailea izango, eta bertan lortutako puntuazioa ere ezingo da kontuan hartu oposizio-aldiko probak gainditzeko.

Epaimahaiak ondorengo merituak balioetsiko ditu, eskaria egiterakoan alegatu eta Epaimahai Kalifikatzaileak eskaturiko unean behar beste egiaztatu baldin badira.

- a) Lanbide-esperientzia hondakinak biltzeko kamioien gidari gisa. 0,25 puntu balioetsiko da lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun), gehienez 6 punturaino.

Aurreko ataletan aipaturiko lanbide-esperientzia Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (INSS) egindako frogagirien bidez egiaztatuko da, eta, zerbitzuak erakunde pribatu batean eman badira, enpresako ziurtagirien bidez. Zerbitzuak Herri-Administrazioaren batean eman badira, nahikoa izango da bertan eskudun den organoak egindako ziurtagiriarekin.

Debagoieneko Mankomunitatean egindako zerbitzuak eta izandako lanbide-esperientzia, eskaria egiterakoan alegatu baldin badira, ez dira agiri bidez justifikatu behar eta bertan agertzen diren datuen arabera balioetsiko dira.

## **10.- Epaimahaiaren proposamena**

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa eta oposizio aldietan lorturiko puntuen batura izango da, eta honela ezarriko da behin betiko puntuazio-ordena.

Merituen eta ariketen kalifikazioa bukatu ondoren, eta azken puntuazio-ordenaren arabera, probak gainditu dituzten hautagaien zerrenda emango du argitara Epaimahaiak.

Epaimahaiak Mankomunitateko lehendakariari emango dio zerrenda hori aldi baterako lan-poltsa gisa erabil dezan.

Lanean hasi aurretik, oposizio-lehiaketan parte hartzeko 3. oinarrian eskatzen diren baldintzen egiaztapenak Mankomunitateko Idazkaritza Nagusian aurkezteko eskatuko zaie prozesua gainditutako zerrendan dauden hautagaiei.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuren batean izan ezik, proposaturiko hautagaiek ez badute eskaturiko dokumentazioa aurkezten edo, aurkeztutakoa aztertu ondoren, baldintzaren bat ez dutela betetzen ikusten bada, ezingo dira horiek kontratatu, eta bertan behera geratuko dira beroriei buruzko jarduketa guztiak, faltsukeriagatik izan dezaketen erantzukizunaz gain

### **11.- Gorabeherak**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena du edozein zalantza argitzeko eta oposizio-lehiaketa ongi gauzatu dadin beharrezko erabakiak hartzeko.

### **12.- Aurka egite edo inpugnazioak**

Deialdi honen, beronen oinarrien eta ondorengo administrazio-egintzen eta Epaimahaiaren jardunaren aurka, abenduaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuta— eta Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duen Legeak ezarritako kasuetan eta eran egin ahal izango da.

**EGINBIDEA.- Oinarri hauek Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zituen 2016ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2016ko maiatzaren 11n.  
IDAZKARIA**



## 1. ERANSKINA

1. GAIA.- Debagoiena eskualdea; ezagutza geografikoa.
2. GAIA.- Hondakinen gaikako bilketa; hondakin-motak; hondakinen hiztegia.  
([www.debagoiena.eus/ingurumena](http://www.debagoiena.eus/ingurumena))
3. GAIA.- Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren instalazioak eta zerbitzuak. ([www.debagoiena.eus/ingurumena](http://www.debagoiena.eus/ingurumena))
4. GAIA.- Hondakinak biltzeko ibilgailuen ezaugarriak.([www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus))
5. GAIA.- Laneko Arriskuen Prebentzioa: Apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuaren 2. artikulua eta eranskina, maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 2. artikulua eta eranskina, eta INSH (Insituto Nacional de Seguridad e Higiene) delakoaren 1038. prebentzio ohar teknikoa.([www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus))